



KIMIKAKO GRADUA

3. MAILAKO IKASLEAREN GIDA

2024-2025 IKASTURTEA

Edukien taula

1.- Kimikako Gradua.....	3
Ikasketen antolaketa	3
Funtsezko Modulua.....	3
Irakaskuntza jarduera.....	4
Ebaluazioaren prozedura orokorra.....	4
Gradu Amaierako Lana	5
Mugikortasuna	5
Kanpoko praktika akademikoak.....	5
Tutoretza akademikoak.....	5
Tutoretza Plana (TP).....	5
Koordinazioa	6
Bestelako informazio interesgarria	6
2.- Taldearentzako informazio espezifiko.....	7
Ikasleen banaketa irakaskuntza taldeetan.....	7
Taldeari dagozkion jardueren egutegia	7
Irakasleak	7
3.- Hirugarren mailako irakasgaiei buruzko informazioa	7

Gida hau Kimikako Graduako Ikasketa Batzordeak (KIMGIB) egin du

1.- Kimikako Gradua

Kimikako Graduaren helburu nagusia kimikako prestakuntza integrala eskaintzea da. Beraz, lau urte horiek igarotakoan, material eta prozesu kimikoak ezaugarritzeko, sintetizatzeko eta analizatzeko beharrezkoak diren hainbat fenomeno fisiko-kimiko ulertzeko eta erabiltzeko gai izango zara. Kimikako graduatu gisa, kimikaren edozein arlotan jarduera profesional zientifikoak eta teknikoak, besteak beste, industria proiektuak, gauzatu ahal izango dituzu.

Kimikako Graduaren ezaugarri nagusienetako bat bere izaera esperimental nabarmena da. Izan ere, bertan ematen diren irakasgaien % 30 praktikoak dira, hau da, laborategian lan egitea barne hartzen dute. Horri Gradu Amaierako Lana gehitu behar zaio (18 kreditu), guztiz esperimental eta aplikatua izango baita. Gainera, enpresetan praktikak egiteko aukera eskaintzen du hautazko jarduera gisa, gehienez 12 kredituren truke.

Ikasketen antolaketa

1. taulan eta 1. irudian ikus daitekeen bezala, Kimikako Gradua hiru modulutan banatuta dago: oinarrizkoa (lehen maila), funtsezkoa (bigarren eta hirugarren mailak) eta aurreratua (laugarren maila). Azken horrek, gainera, Gradu Amaierako Lana barne hartzen du.

1. taula. Kimikako Graduaren banaketa moduluen eta arloen arabera:

Modulua	Arloa	Kredituak
Oinarrizkoa (1-2 lauhilekoak)	Kimika	24
	Matematika	12
	Fisika	12
	Natura-Zientziak	12
Funtsezkoa (3-7 lauhilekoak)	Kimika Analitikoa	24
	Kimika Fisikoa	24
	Kimika Ez organikoa	24
	Kimika Organikoa	24
	Osagarriak Kimikan (Ingeniaritza Kimikoa, Biokimika eta Materialen Zientzia)	24
Aurreratua (5-8 lauhilekoak)	Hautazko Irakasgaia	42
	Gradu Amaierako Lana	18

1. ikasturtea		2. ikasturtea		3. ikasturtea		4. ikasturtea	
1. Lauh.	2. Lauh.	3. Lauh.	4. Lauh.	5. Lauh.	6. Lauh.	7. Lauh.	8. Lauh.
ROI	ROII	RA I	KA I	KA II	KA II	MZ	Haut. 5
MI	MII & E	KFI	KFI	KF II	KF II	IKP	Haut. 6
G	B	KII	KII	KI II	KI II	Haut. 3	Haut. 7
OBL	MEK	KOI	KOI	RO II	RO II	Haut. 4	GrAL
F	F	Esp. KI	Esp. KI	Esp. KA	Esp. KA	GrAL	GrAL
		Esp. KF	Esp. KF	IK	IK		
		BK	BK	Haut. 1	Haut. 2		

1. irudia. Kimika Graduaren planifikazioa FCT/ZTF-an.

Funtsezko Modulua

Graduko 3. maila, aurreko ikasturtean hasitako Funtsezko Moduluen jarraipena da. Modulu hau Graduaren muina da, bertan Kimikaren berezko gaiak landuko dituzu Kimikaren inguruko beste gai batzuekin batera. Hori dela eta, Funtsezko Moduluen egitura konplexua da, eta bertan eskaintzen diren 120 kredituak 2. mailatik 4. maila bitartean irakasten dira. Horrez gain, irakasgaiak bost multzotan antolatuta daude (bakoitza 24 kredituko). Multzo horiek bat datoz kimikaren jakintza-arloekin: Kimika Analitikoa, Fisikoa, Ez-organikoa eta Organikoa. Gainera, horiei Osagarriak Kimikan deritzen arloa gehitu zaie. Graduko 3. maila osatzen dute Funtsezko Moduluko nahitaezko sei irakasgaiak eta Modulu Aurreratuko bi hautazkok. Honez gain, irakasgai batzuk ingelesez ere eskaintzen dira, horrela, hizkuntza honen terminologia teknikoak ezagutzeko eta modu egoki batean erabiltzeko aukera izango duzu. Inongo zalantzarik gabe ingelesez trebatzea zure formakuntzarako eta lan-etorkizunerako garrantzitsua izango da. 2. taulan dituzu 3. mailan eskaintzen diren derrigorrezko (urte osokoak) eta hautazko irakasgaiak (lauhilekoak). Irakasgai bakoitza zein hizkuntzatan eskaintzen den ere ikus dezakezu.

2. taula. Graduko 3. mailako irakasgaiak:

Alorra	Irakasgaia	Hizkuntza	Kreditua
Kimika Analitikoa	Kimika Analitikoa II	E, G, I	9
	Esperimentazioa Kimika Analitikoan	E, G, I	6
Kimika Fisikoa	Kimika Fisikoa II	E, G	9
Kimika Ez organikoa	Kimika Ez organikoa II	E, G	9
Kimika Organikoa	Kimika Organikoa II	E, G	9
Osagarriak Kimikan	Ingeniaritza Kimikoa	E, G	6
Hautazkoa	Ingurumenaren Kimika	E, G	6
Hautazkoa	Dokumentazioa eta Komunikazioa Kimikan	E, G	6
Hautazkoa	Laborategiko Kalitatea eta Kudeaketa	G	6
Hautazkoa	Farmaziaren Intereseko Produktu Organikoak	E, G	6

E = euskara; G = gaztelania; I = ingelesa

Irakaskuntza jarduera

Azaldutako helburuak betetzeko, aurrez aurreko irakaskuntza jarduera honela banatu da: eskola magistralak (M), gelako praktikak (GA), ordenagailuko praktikak (GO), laborategiko praktikak (GL), mintegiak (S) eta landa praktikak (GCA). Modulu honi dagozkion 3. mailako irakasgaien banaketa 3. taulan ikus daiteke. Batez bestean, aurrez aurreko ordu bakoitzak 1,5 orduko eskolaz kanpoko lana dakar, ikasketa jardueren eta lan zuzenduen artean banatua.

3. taula. Irakaskuntza orduen banaketa (aurrez aurreko orduak):

Irakasgaia	M	GA	GO	S	GL	GCA
Kimika Analitikoa II	30	22	30	8		
Esperimentazioa Kimika Analitikoan		7		3	50	
Kimika Fisikoa II	34	15	10	5	26	
Kimika Ez organikoa II	45	15		5	25	
Kimika Organikoa II	45	15		5	25	
Ingeniaritza Kimikoa	45	15				
Ingurumenaren Kimika	37	15		5		3
Dokumentazioa eta Komunikazioa Kimikan	24	8	20	8		
Laborategiko Kalitatea eta Kudeaketa	30	15	10	5		
Farmaziaren Intereseko Produktu Organikoak	30	24		6		
Guztira	320	151	70	50	126	3

Ebaluazioaren prozedura orokorra

Ebaluazioaren helburua aipatu ditugun gaitasunak eskuratu dituzula zehaztea da. Irakasgai bakoitzean bere helburuei hoberen egokitzen zaizkion estrategiak hartuko dira kontuan, jarraian erantsitako irakaskuntza gidetan kontsulta daitezkeenak. Oro har, irakasgai guztiek ebaluazio jarraitua eta proba espezifikokoak barne hartzen dituzte.

Irakasgai teorikoetan, orokorrean, ebaluazioak proba teorikoak eta teoriko-praktikoak barne hartzen ditu, ahozkoak zein idatzizkoak; eta eskoletara bertaratzea kontuan hartuko da.

Irakasgai esperimentaletan, aldiz, bertaratzea nahitaezkoa da, eta azken emaitza bi ataletan banatzen da: alde batetik, laborategiko lanei dagozkien zereginak, eta, bestetik, froga teoriko-praktiko bat. Lehen atalari dagokionez, hauek hartzen dira kontuan: laborategiko zereginen prestaketa lana, segurtasun arauari jarraituz lan egitea, higiena eta kalitatea, lortutako emaitzen kalitatea, laborategiko txostenak eta koadernoak, etab. Proba teoriko-praktikoei dagokionez, batetik, lan esperimental bat egin beharko da, eta, bestetik, irakasaiko gaiekin zerikusia duten zenbait galderari erantzun beharko zaie.

Gainerako irakasgaietan, zeregin praktikoak eta teorikoak dituztenak hain zuzen, ebaluazioak zeregin teoriko-praktikoak eta esperimentalak hartuko ditu kontuan, bakoitza dagokion pisuaren arabera. Bi kasuetan aurrez aipatutako ebaluazio irizpideak hartuko dira kontuan.

Garrantzitsua da ere ohiko eta ez-ohiko deialdietan egindako ebaluazioak bereiztea, horiek ezberdinak izan daitezkeelako.

Gradu Amaierako Lana

Gradu Amaierako Lana (GrAL) ikasle bakoitzak zuzendari baten edo gehiagoren gidaritzapean banaka egin behar duen proiektu, memoria edo azterlana da. Lan horretan txertatu eta garatu beharko dira, hain zuzen, Gradu ikaskuntza-prozesuan zehar jasotako edukiak, gaitasunak eta trebetasunak.

Zientzia eta Teknologia Fakultateko Gradu Amaierako Lana egin eta defendatzeari buruzko arautegian ikasleek GrAL-a egiten hasteko ezagutu behar dituzten faseen eta bete beharreko baldintzen inguruko xehetasunak azaltzen dira. Hurrengoak dira 2024/25 ikasturteko data garrantzitsuak:

Aurreinskripzioa (2024ko uztailak 10-12, biak barne): online betetzeko formularioaren bidezko aurreinskripzioa: https://www.ehu.es/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/tfg_aurreinskripzioa.

Inskripzioa edo izen-ematea: GrAL-ean izena emateko, 72 kreditu eduki daitezke gehienez egin gabe (4. mailako 60 kredituak eta aurreko ikasturteetatik gehienez gera daitezkeen 12). Bi aukera daude:

- **2024ko irailak 2-6** (biak barne): irakasleek ikasleekin **adostutako lanen** izenak ematen dituzte eta, aldi berean, adostu gabeko lanen gaiak eskaintzen dituzte, gero ikasleek hautatu ditzaten.
- **2024ko irailak 18-20** (biak barne): **adostutako lanik ez** duten ikasleek GAUREn bidez egiten dute gaien aukeraketa. Zerrendatik gehienez bost gai hautatu daitezke.

Esleipena (2024ko irailak 23-27, biak barne): GrAL-en gaien behin betiko esleipena egindakoan ikasleei posta elektronikoko bidez mezua helarazten zaie.

Matrikulazioa, memoria entregatzea eta defentsa: matrikulak bi defentsa deialditarako eskubidea ematen du ikasturteko. Matrikulatzeko, ikasleak Gradu kreditu guztiak gaudituta izan behar ditu, GrAL-arenak izan ezik. 2024/25 ikasturtean, honako hauek izango dira matrikularako eta defentsarako datak:

Deialdia	Matrikula eta Memoria entregatzea	Defentsa
Otsaila	2025ko otsailaren 12-14	2025ko martxoaren 4-6
Ekaina	2025ko ekainaren 18-20	2025ko uztailaren 8-10
Abuztua	2025ko uztailaren 22-24	2025ko irailaren 2-4

GRALari buruzko informazio gehiago:

<https://www.ehu.es/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/trabajos-fin-grado>

Mugikortasuna

Fakultateak parte hartzen duen mugikortasun programen bidez, aukera izango duzu lauhileko edo ikasturte oso batez beste unibertsitate batean ikasteko. Bete beharreko baldintzak eta kontuan izan beharreko informazioa hurrengo estekan topa dezakezu:

<https://www.ehu.es/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/programas-intercambio-alumnado>

Kanpoko praktika akademikoak

Kanpoko erakunde batean praktikak egiteak ikasleei lan-mundura sartzeari erraz diezaieke. Gainera, ezagutza eta gaitasun praktikoak bereganatzeaz gain, lan-eskarmentua ere eskuratzen dute. Kimikako Graduan curriculumaz kanpoko kanpo-praktika akademikoak egin daitezke. Horiek boluntarioak dira, eta egin ahal izateko, 120 kreditu gaudituta behar dira. Informazio gehiago: <https://www.ehu.es/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/insersion-laboral>

Tutoretza akademikoak

Tutoretza akademikoa irakasle batek ikasleei aholkularitza eta orientazio akademikoa eskaintzen dien prozesua da. Aholkularitza honi esker ikasleak laguntza jasoko du ikasten dituen irakasgaietan. Lauhileko bakoitzaren hasieran irakasle bakoitzak bere tutoretza-ordutegi berri emango du.

Tutoretza Plana (TP)

Tutoretza Planaren (TP) helburua da ikasleei unibertsitateko bizitzan integratzen laguntzea eta orientazioa eskaintzea ibilbide akademiko osoan zehar.

Zerbitzu honek, funtsean, Geologiako Gradu Orientazio Zerbitzu baten antzera funtzionatuko du. Zerbitzu honen helburuak dira:

- prestakuntza integraleko prozesuan ikasleei laguntzea, ikuspegi akademiko, pertsonal eta profesionalean
- ikasleei Fakultatearen jarduera akademikoan integratzen laguntzea

- o ikasleei unibertsitatean eskuragarri dituzten zerbitzu eta jardueren berri ematea
- o ikasketa aldian ager daitezkeen zailtasunak identifikatzea eta ikasteko gaitasun eta estrategien garapena erraztea
- o erabakiak hartzen laguntzea, bereziki curriculum ibilbidea aukeratu behar dutenean
- o ikasleen garapen akademiko eta profesionalerako interesgarria izan daitezkeen informazioa ematea

Ikasleek Gradu edo Ikasturteko Koordinatzailearen bidez bideratuko dituzte argibide- eta aholku-eskaerak, hurrengo koordinatzaileekin kontaktuan jarritz:

- AHAL DELA, Graduoko Koordinatzailea** Eider Goikolea Núñez (eider.goikolea@ehu.eus 946015955)
- 1. mailako koordinatzailea** Eneritz Anakabe Iturriaga (eneritz.anakabe@ehu.eus 946015548)
- 2. mailako koordinatzailea** Beñat Artetxe Arretxe (benat.artetxe@ehu.eus 946015992)
- 3. mailako koordinatzailea** María Teresa Arbeloa López (teresa.arbeloa@ehu.eus 946015970)
- 4. mailako koordinatzailea** Nestor Etxebarria Loizate (nestor.etxebarria@ehu.eus 946015530)

Ikasturteko Koordinatzaileek jasotako eskakizunen berri emango diote Graduoko Koordinatzaileari, eskakizun horiei ahalik eta azkarren eta eraginkorren erantzuteko modua adosteko eta ikasleari eskatutako laguntza emateko. Zenbait aukera daude:

- Gradu edo Ikasturteko Koordinatzaileak berak laguntza ematea
- beste irakasle bat esleitzea orientazio-eskaerari erantzunik eraginkorrena emateko
- arazoari konponbidea emateko aproposa den beste edozein aukera

Gainera, ikasleren batek nahi izatekotan, behin betiko tutore bat eska dezake, bien artean hala adosten badute eta Graduoko Koordinatzaileari horren berri ematen bazaio.

Orientazio Zerbitzu honen hobekuntza aldera, Graduoko Koordinazioak gertakarien erregistroa osatuko du.

Koordinazioa

Gradu Ikasketen Batzordea (GIB) Graduoko koordinazioaz arduratzen da. Hau da, bere zereginen barnean Graduaren curriculumaren garapenean, jarraipenean, berrikuspenean eta hobekuntzan laguntza ematea daude. Hurrengoak dira Kimikako Graduoko koordinatzaileak:

Mota	Koordinatzailea	Kontaktua
Gradua TP	Eider Goikolea Núñez Kimika Organikoa eta Ez-organikoa Saila	eider.goikolea@ehu.eus 946015955 CD2.P1.18
1. maila	Eneritz Anakabe Iturriaga Kimika Organikoa eta Ez-organikoa Saila	eneritz.anakabe@ehu.eus 946015548 CD2.P2.5
2. maila	Beñat Artetxe Arretxe Kimika Organikoa eta Ez organikoa Saila	benat.artetxe@ehu.eus 946015992 CD2.P1.20
3. maila	María Teresa Arbeloa López Kimika Fisikoa Saila	teresa.arbeloa@ehu.eus 946015970 CD1.P2.6
4. maila GrAL	Nestor Etxebarria Loizate Kimika Analitikoa Saila	nestor.etxebarria@ehu.eus 946015530 CD1.P0.17

Kimikako Graduoko GIBei buruzko informazio gaurkotua hurrengo estekan kontsultatu daiteke:

<https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/comisiones-grado#GradulkasketenBatzor9>

Gainera, Graduoko irakasgai bakoitzerako koordinatzaile bat dago, eta bera izango da irakasgai jakin baten irakasle-taldea koordinatzeaz arduratuko dena. Kimikako Graduoko irakasgaietako koordinatzaileak hurrengo estekan topa daitezke:

<https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/coordinacion-asignaturas-qui>

Bestelako informazio interesgarria

Graduko zenbait irakasgaitan, irakasleek ikasgela birtuala erabiltzen dute irakaskuntza presentzialaren osagarri gisa. Ikasgela horiek eGelan daude (<https://egela.ehu.eus>). eGelan sartzeko LDAP erabiltzaile-izena behar da, ikasle bakoitzari esleitzen zaiona ikasle berri moduan matrikula egitean. LDAP erabiltzailea ere

GAURen sartzeko erabiltzen da. GAUR administrazio-tramiteak eta ikasleen bizitza akademikoari lotutako datuak kontsultatzeko erabiltzen den erreminta informatikoa da.

Kimikako Graduan matrikulatutako ikasle bakoitzak posta elektronikoko korporatibo propioa dauka; kasu honetan ere, ikasle berri moduan matrikula egitean helbidea eta pasahitza esleitzen zaio ikasle bakoitzari. Helbide honetara iristen dira irakasleek, eGelak, dekanotza-taldeak eta unibertsitateko bestelako estamentuek bidalitako mezuak. Helbide honetara iristen diren mezuak posta elektronikoko pertsonalera birbideratu daitezke. Informazio gehiago hurrengo estekan: https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/bbc_alumnado. Irakasleek fitxategiak gordetzeko zerbitzua ere badago (<https://www.ehu.eus/es/group/ikt-tic/bildu>).

Posta korporatiboaren erabilerari edo UPV/EHUko zerbitzu informatikoei lotutako edozein zalantza edo arazo izanez gero, gomendagarria da EAZekin (Erabiltzailearentzako Arreta Zerbitzua) harremanetan jartzea <https://lagun.ehu.eus> web orriaren bidez eta LDAP erabiltzailea erabiliz. EAZi buruzko informazio gehiago <https://www.ehu.eus/eu/web/ikt-tic/eaz-cau> estekan.

Zientzia eta Teknologia Fakultateko Irakaslearentzako Arreta Zerbitzuak (ZTFIAZ) aholku ematen die ikasleei, eta enpresetako praktiketan zein mugikortasun programetan parte hartzeko beharrezko izapideez ere arduratzen da. Fakultateko Idazkaritzan kokatuta dago. ZTFIAZi buruzko informazio gehiago <https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/atencion-estudiantes> estekan.

Kimikako Graduari buruzko informazio gehiago:

<https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/grado-quimica>

Fakultateko web orria:

<https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/>

2.- Taldearentzako informazio espezifikoa

Ikasleen banaketa irakaskuntza taldeetan

Irakasgai batean talde bat baino gehiago dagoen kasuetan, ikasleei bere taldea zein den jakinaraziko zaie lehenengo asteetan zehar.

Taldeari dagozkion jardueren egutegia

Ikastegiko eskola-egutegia webgune honetan kontsultatu daiteke:

<https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/calendario>

Ordu-tegi ofiziala, jarduera bakoitzaren ikasgelen inguruko informazioa eta azterketen egutegi ofiziala Fakultateko web-orrian argitaratu eta eguneratuko dira. Hurrengo estekan kontsulta daitezke: <https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/egutegia-ordutegiak> Horrez gain, aurreko estekan ere Graduako ikasgaietarako izendatutako 5. eta 6. deialdiko tribunalen informazioa aurkituko duzu.

Irakasleak

Gradu honetako ikasgaiak ematen dituzten irakasleen inguruko informazioa (harremanetarako datuak, tutoretza-orduak) Graduako webgune instituzionalean kontsultatu daiteke:

<https://www.ehu.eus/eu/web/graduak/kimikako-gradua-bizkaia/irakasleak>

Lotura horretan, irakasle baten informazioa ikusteko, nahikoa da irakaslearen izenaren gainean klik egitea.

3.- Hirugarren mailako irakasgaiari buruzko informazioa

Irakasgaiak ordena alfabetikoaren arabera ordenatuak daude.

GUÍA DOCENTE

2024/25

Centro 310 - Facultad de Ciencia y Tecnología**Ciclo** Indiferente**Plan** GQUIMI30 - Grado en Química**Curso** 3er curso**ASIGNATURA**

26696 - Calidad y Gestión de Laboratorio

Créditos ECTS : 6**DESCRIPCIÓN Y CONTEXTUALIZACIÓN DE LA ASIGNATURA**

En esta asignatura se muestran los distintos apartados de la calidad que llevan a la mejora y al mantenimiento de la calidad de los resultados obtenidos en el laboratorio analítico. A partir de los fundamentos de los métodos analíticos estudiados en asignaturas anteriores se desarrollan los aspectos necesarios para conseguir mejorar los resultados obtenidos. Por un lado se trabajan aspectos técnicos, como los relacionados con el desarrollo e implementación de métodos analíticos y el control de la calidad y, por otro, aspectos más relacionados con la gestión del laboratorio en la implementación de la garantía de calidad

COMPETENCIAS / RESULTADOS DE APRENDIZAJE DE LA ASIGNATURA

En esta asignatura se describen los métodos que garantizan la calidad de las determinaciones analíticas. Asimismo, se describen las normativas y regulaciones que afectan a la actividad de los laboratorios analíticos. Además, se incluyen los métodos para la implementación de la calidad del laboratorio y de la gestión del mismo.

Competencias:

M03CM04: Disponer de los protocolos y estándares de calidad de un laboratorio químico para adecuar la validación de los métodos de análisis y medida y para facilitar una gestión adecuada de los recursos.

M03CM09: Interpretar y discutir los resultados relevantes derivados de la actividad experimental y plasmar las conclusiones en forma de informes científico-técnicos y presentaciones orales.

M03CM11: Poder explicar de forma oral y escrita de manera comprensible, fenómenos y procesos relacionados con la Química y materias afines, en euskara y/o castellano y en inglés.

M03CM12: Emplear la información y conocimientos para capacitarse en nuevos campos existentes o emergentes relacionados con la Química.

CONTENIDOS TEÓRICO-PRÁCTICOS

Desarrollo e implementación de métodos analíticos. Incertidumbre y trazabilidad de resultados, Validación de métodos, Pruebas interlaboratorio

Control de calidad Diagramas y control de tendencias, disoluciones de control y blanco, materiales de referencia

Implementación de la garantía de calidad ISO 17025 certificación y acreditación, Buenas prácticas de laboratorio

Gestión de laboratorio Sistemas inteligentes de gestión de laboratorio (LIMS). 5S. e-notebook. Benchmarking

Normativas y regulaciones ISO9000; Aplicación de normativas (REACH, ...)

METODOLOGÍA

Dos horas por semana son clases magistrales (M), una hora por semana es práctica de aula (GA), una hora por semana es práctica de ordenadores (GO) excepto por las últimas cinco semanas en las que una hora por semana son seminarios

TIPOS DE DOCENCIA

Tipo de Docencia	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Horas de Docencia Presencial	30	5	15		10				
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	30	10	30		20				

Leyenda: M: Magistral

S: Seminario

GA: P. de Aula

GL: P. Laboratorio

GO: P. Ordenador

GCL: P. Clínicas

TA: Taller

TI: Taller Ind.

GCA: P. de Campo

SISTEMAS DE EVALUACIÓN

- Sistema de evaluación final

HERRAMIENTAS Y PORCENTAJES DE CALIFICACIÓN

- Prueba escrita a desarrollar 60%

- Realización de prácticas (ejercicios, casos o problemas) 40%

CONVOCATORIA ORDINARIA: ORIENTACIONES Y RENUNCIA

60% Examen escrito

40% Trabajos realizados durante el curso

Se renuncia a la convocatoria al no presentarse

CONVOCATORIA EXTRAORDINARIA: ORIENTACIONES Y RENUNCIA

100% Examen escrito

MATERIALES DE USO OBLIGATORIO

BIBLIOGRAFÍA

Bibliografía básica

Garantía de la calidad en los laboratorios analíticos. R. Compañó y A. Ríos. Síntesis, 2002. Madrid
Quality Assurance in analytical chemistry. E. Prichard Vicki Barwick. Wiley. 2007, Weinheim

Bibliografía de profundización

Quantifying uncertainty in analytical measurements, Eurachem/Citac Guide, 2nd ed. 2000 (www.eurachem.org)
Quality assurance in analytical chemistry. B.W. Wenclawiak, M. Koch eta E. Hadjicostas ed. Springer, 2004, Berlin

Revistas

Accreditation and Quality Assurance, Springer
The Quality Assurance Journal, Wiley

Direcciones de internet de interés

Laboratory of the Government Chemist (LGC) :
[http:// www.lgc.co.uk](http://www.lgc.co.uk)
Eurachem: <http://www.eurachem.org/>
<http://www.nordicinnovation.net/nordtest.cfm>

OBSERVACIONES

IRAKASKUNTZA-GIDA

2024/25

Ikastegia 310 - Zientzia eta Teknologia Fakultatea**Zikl.** Zehaztu gabea**Plana** GQUIMI30 - Kimikako Gradua**Ikastaroa** 3. maila**IRAKASGAIA**

26702 - Dokumentazioa eta Komunikazioa Kimikan

ECTS kredituak: 6**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

Kimikako Graduan hirugarren mailako ikasleentzako irakasgai hautazkoa da eta lehen lauhilekoan irakasten da. Ikasleei informazio eta dokumentazioaren iturriak eraginkortasunez erabiltzen irakasten zaie. Gainera, ikasleek informazioa bilatzeko eta biltzeko aukera ematen duten Internetek eskaintzen dituen zerbitzu ezberdinak erabili behar dituzte. Era berean, ikasleei ahozko edo idatzizko txostena edo zientzia-lan bat aurkezteko jarraibideak erakusten zaizkie.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

Ikasleek, Modulu Aurreratuari (RD1393/2007) esleitutako gaitasun espezifikoak eta zeharkako gaitasun batzuk ere garatu behar dituzte eta ondoren deskribatzen dira:

- Kimikarekin eta harekin erlazionatutako eremuekin zerikusia duten fenomeno eta prozesuak ahoz eta idatziz azaltzeko gai izan (M03CM11).
- Informazioa eta ezagutza, kimikarekin erlazionatutako eremu zaharretan edo berrietan erabiltzeko gai izan (M03CM12)
- Ebaluatu, interpretatu, sintetizatu eta transmititu datu eta informazio kimikoak (M03CM15)

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

Sarrera. Komunikazioa Kimikan. Justifikazio eta komenentzia.
Dokumentazio zientifikoa: garrantzia eta definizioak. Dokumentazioa Kimikan: garrantzia eta definizioak. UNESCO-ko gai zientifikoen sailkapena. Informazioan ari izaten diren erakundeak.
Lehenengo, bigarren eta hirugarren informazioaren iturriak. Aldizkari zientifikoak eta beraien betekizuna. Aldizkari motak eta ISSN sailkapena. Kimikako aldizkariak. Patenteak eta beraien sailkapena. Laburpen-zerbitzuak eta Index. Chemical Abstract Service. Berrikuspena, entziklopedia eta eskuliburuak.
Interneta. Nola erabiltzen da?, non bilatzen da informazioa? Kimikarientzako gune interesgarriak.
Datu-baseak. Antolaketa. Erabilera eta sarbidea. Informazio-trukea. ISI-WOK eta Scifinder
Nola egin bilaketa bibliografikoa on-line. Irizpide garrantzitsuak. Sistema automatizatua informazioa bilatzeko.
Artikulo zientifiko eta txosten teknikoaren prestakuntza eta aurkezpena. Idatzizko komunikazioaren ezaugarri orokorrak.
Artikulo zientifiko: helburuak, ezaugarriak, egitura eta arauak. Txosten tekniko eta profesionalen aurkezpena.
Jardunaldiak eta mintegiak. Ahozko komunikazioaren ezaugarri orokorrak. Motak, arauak eta erakusketa estrategiak.
Ikus-entzunezko teknikak. Nola egin mintegi bat.
Lanbideen bilaketa. Ezaugarri orokorrak: lehenengo lanbidearen bila. Curriculum vitae-aren prestakuntza. Elkarriketaren prestakuntza

METODOLOGIA

Klase magistralak (24 ordu), ordenagailu-praktikak (28 ordu) eta mintegiak (8 ordu) ematen dira ariketak eta galderak egiteko eta irakasgaiaren alderdi garrantzitsu batzuetan sakontzeko.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	24	8			28				
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	36	12			42				

Legenda: M: Magistrala S: Mintegia GA: Gelako p.
GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p. GCL: P. klinikoak
TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 60
- Banakako lanak % 25
- Lanen, irakurketen... aurkezpena % 15

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Iragasgaiaren nota finala lortzen da ondoko irizpideak kontuan hartuz:

- Idatzizko azterketak. Nota finalaren %60-a.
- Banakako lanak. Nota finalaren %25-a.
- Lanen aurkezpenak, irakurmenak, asistentzia aktiboa eta lan presentzialen jarraipena. Nota finalaren %15-a.

Gutxienezko puntuazioa (atal bakoitzean) = 4.0

Ebaluazio jarrai honi uko egin nahi dioten ikasleek, azken ebaluazio bidez ebaluatuak izateko, idatzi bat aurkeztu beharko dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari eta, horretarako, 9 asteko epea izango du irakasgaia hasten denetik. Kasu horretan, ebaluaketa notaren %100-a ariketa teorikoak eta praktikoak dituen azterketa bakar batean lortuko da.

Azterketara ez azaltzea, ohiko deialdiari uko egitea suposatuko du.

EZOHICO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ezohiko deialdian, idatzizko azterketaren ekarpena azkenengo notari %100 izango da. Azterketara ez azaltzea, ezohiko deialdiari uko egitea suposatuko du.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

Rowland, J.F.B; Mildren, K.W.; Rhodes, P. (Eds.), Information Sources in Chemistry. 5ª. Ed. Bowker-Saur, New York, 2000. Sos peña, R., Técnicas de documentación científica. Editorial Promolibro, Valencia, 1996.

Gehiago sakontzeko bibliografia

Gutiérrez-Zorrilla, J.M. y Román, P. Química e Internet. Anales de la Real Sociedad Española de Química, Enero-Marzo, pp. 26-35, 2003. D'Ambra, M., Las nuevas técnicas de comunicación. Ed. de Vechi, Barcelona, 1993. Fuentes i Pujol, M. E., Documentación científica e información. Promociones y Publicaciones Universitarias SA, Barcelona, 1992. Day, R.A., Como escribir y publicar trabajos científicos, Organización Panamericana de la Salud, Phoenix, 1990

Aldizkariak

Interneteko helbide interesgarriak

<http://www.accesowok.fecyt.es/>
<http://dialnet.unirioja.es/>
<http://www2.uah.es/jmc/webpub/INDEX.html>
<http://www.oepm.es/>

OHARRAK

Ikastegia 310 - Zientzia eta Teknologia Fakultatea

Zikl. Zehaztu gabea

Plana GQUIMI30 - Kimikako Gradua

Ikastaroa 3. maila

IRAKASGAIA

26129 - Esperimentazioa Kimika Analitikoan

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Kimika Analitikoa I eta Kimika Analitikoa II irakasgaietan batzen diren eduki eta ezagutzetan oinarrituta, irakasgai honetan aztarna analisaren eta analisi instrumentalaren kontzeptuan lagin errealean analisisan aplikatuko dira. Bi mota desberdineko aktibitateak beteko dira. Batetik, laborategiko 5 praktika gidatu egingo dira, bakoitzean, instrumentazio desberdinaren erabilera bermatzen duten metodologiak landuz. Bestetik, prozedura analitikoaren ikuspuntu osotuagoa bermatzen duen metodologia analitiko baten garapenean oinarritzen den azken praktika bat egingo da: lana laborategian egiteko jarraitu beharreko prozedura analitikoaren plangintza eta aurkezpena. Lehenengo praktikak laborategiko oinarriak ezartzeaz gain, laborategiko lanak dirauen bitartean laborategiko koadernoaren idazketa, eta, emaitzen idatzizko zein ahozko aurkezpenak lantzeko eta trebatzeko erabiltzen dira irakasgaiaren zehar azaltzen diren arauak jarraituta. Aktibitate horiek guztiak proiektu teorikoa diseinatzeko erabiliko dira.

Irakasgai honetako estrategia analisirako teknika instrumentalen erabileraren eta aplikazioaren mailaz mailako lorpena da. Praktika bakoitza analisi jakin baten testuinguruan ematen da eta problema analitiko zehatz horren ebazpenerako jarraitu behar den prozesu analitiko osoa ematen du. Prozedura honetan zehar, kalibraturako aukera desberdinak, eragiketa analitiko batzuen optimizazioa, emaitza analitikoaren kalitatearen bermatzea, laginaren tratamendu desberdinen konparazioa eta antzeko gaiak jorratuko dira.

Behin prozedura hauek laborategian eta hauei lotutako jardueretan landu diren, proiektu simple baten garapenean bateratuko dira. Kasu honetan, ikasleek analisi metodoa diseinatu beharko dute.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

GAITASUN ESPEZIFIKOAK:

Prozedura analitiko eta bertan dauden urratsak ezagutzea eta kasu bakoitzean gai izatea aurkeztutako auzi analitikoaren aurrean erabili beharreko metodo egokiena planifikatzeko, aplikatzeko eta kudeatzeko.

ZEHARKAKO GAITASUNAK:

- Kimikarekin eta gertukoak diren zientziekin erlazionatuta dauden prozedurak eta gertakariak irakasgaiaren hizkuntza ofizialean eta modu ulerkorrean, bai ahozko hizkeran bai idatzizko hizkeran, aurkezteko gai izatea eta ingelesez dauden dokumentu eta materialak lantzeko eta ulertzeko gai izatea.
- Bibliografia eta informazio zein komunikazio teknologikak erabilia kimikarekin eta gertukoak diren zientziekin erlazionatuta dagoen informazioa aurkitzeko eta aukeratzeko gai izatea.
- Laborategiko segurtasun arauen eta produktuen erabileraren arauen arabera laborategiko lana garatzeko gai izatea.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

UV-Ikuskorra eta fluoreszentzia molekularreko espektroskopiak
Xurgapen atomikoa edota igorpen atomikoa
Teknika elektrokimikoa
Bereizmen altuko likido kromatografia
Gas kromatografia

METODOLOGIA

Irakasgai honetan laborategiko 5 praktika burutuko dira. Praktikak dirauen bitartean laborategiko koadernoaren idazkera landuko da eta praktika bakoitzak bere txostena, gutxienez bi formatu desberdinetan, beharko du izan, ahozko bi aurkezpen ere egingo direlarik. Horrez gain mintegi eta gelako praktika desberdinak erabiliko dira laborategiko praktikeei gehigarriak diren jarduerak egiteko.

Oharra:

M: Magistrala; S: Mintegia; GA: Gelako P; GL: Laborategiko P; GO: Ordenagailuko P;
GCL: P. klinikoak; TA: Tailerra; TL: Ind. tailerra; GCA: Landa P

Oharra:

GL-ak egitea derrigorrezkoa da

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak		3	7	50					
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a		4,5	10,5	75					

Legenda: M: Magistrala S: Mintegia GA: Gelako p.
GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p. GCL: P. klinikoa
TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 15
- Ahozko defentsa % 10
- Praktika (ariketak, kasuak edo buruketak) % 60
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 15

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ohiko deialdiko ebaluazioa aurretiaz aipatutako ebaluazio tresnen ondorio izango da (jarduera praktikoak eta azterketak) bakoitzari dagozkion portzentajeak kontutan izanda.

Aginte akademikoak jasota duten modura, ebaluazio jarraituaren ereduarekin irakasgaia gainditzeko aukerarik ikusten ez duten ikasleek deialdira hasieratik uko egiteko moduan izango dira eta ebaluazio finalari heldu ahal izango diote, beti ere 18. astea baino lehen eta idatziz. Ebaluazio final honek irakaskuntza-emaizak jaso direla agerian utziko du horretarako beharrezkoak diren zereginak eta azterketak erabiliko direlarik irakasgaiaren barneratutako gaitasun guztiak gainditu direla bermatzeko. Zehazki, analisi-metodo baten garapena eta aplikazioan datzan proiektuari dagozkion urrats guztiak egiteko gai dela erakutsi beharko du ikasleak: plangintza, laborategiko lana, idatzizko txostena eta proiektuaren ahozko aurkezpena (euskarri digitala barne).

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ez-ohiko deialdian ebaluazio finala burutuko da. Ebaluazio final honek irakaskuntza-emaizak jasota dituenaren ebidentzia agerian utziko du horretarako beharrezkoak diren zereginak eta azterketak planifikatuz irakasgaiaren barneratutako gaitasun guztiak gainditu direla bermatuz. Ebaluaziorako erabiliko diren tresnak ohiko deialdian ebaluazio finala aukeratuta zehaztu diren berdinak izango dira.

Ebaluazio jarraituaren bidez lortutako emaitzak positiboak direneko kasuetan, salbuespen modura, emaitza hauek aintzat hartu daitezke ohiko deialdiko portzentajeaz azken frogak ebaluazioaren %100 osatuko duelarik.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Laborategiko koadernoak, mantala, banakako segurtasun-materiala (betaurrekoak, eskularruak etabar.), espatula eta beirarako errotuladorea

BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

- D.A. Skoog, F.J. Holler, T.A. Nieman, Principios de análisis instrumental, McGraw-Hill, Madrid, 2001
- J.F. Rubinson, K.A. Rubinson, Análisis instrumental, Prentice Hall, México, 2000
- K.H. Esbensen. Multivariate data analysis, 5 ed. Camo AB Oslo, 2001
- D.C. Harris, Análisis químico cuantitativo, Reverté, Barcelona, 2007

Gehiago sakontzeko bibliografia

- Quantifying uncertainty in analytical measurements, Eurachem/Citac Guide, 2nd ed. 2000 (www.eurachem.org)
- M. Alley The Craft of Scientific Presentations: Critical Steps to Succeed and Critical Errors to Avoid, Springer Verlag, 2003
- Hans F. Ebel, Claus Bliefert, and William E. Russey The Art of Scientific Writing, Wiley-VCH 2004
- J.R Gartzia Jendaurrean hizlari, Alberdania, Bilbo, 2008

Aldizkariak

Analytical Chemistry

Trends in Analytical Chemistry
The Analyst
Analytica Chimica Acta
Talanta
Analytical and Bioanalytical Chemistry

Interneteko helbide interesgarriak

UPV/EHUko liburutegia: <http://www.biblioteca.ehu.es/p207-home/es/>
The Analytical Chemistry Springboard:
<http://www.anachem.umu.se/jumpstation.htm>
International Union of Pure and Applied Chemistry (IUPAC): <http://iupac.chemsoc.org>
Laboratory of the Government Chemist (LGC) :
<http://www.lgc.co.uk>
The Virtual classroom:
<http://ull.chemistry.uakron.edu/classroom>
The Chemistry Hypermedia Project:
<http://www.files.chem.vt.edu/chem-ed/vt-chem-ed.html>
Eurachem: <http://www.eurachem.org/>
Writing Guidelines for Engineering and Science Students <http://writing.engr.psu.edu/index.html>
TED: Ideas worth spreading: <http://www.ted.com>

OHARRAK

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

Irakasgaiaren izaera praktikoa dela eta, ebaluazio-sistema jarraia izango da. Laborategiko lanarekin lotuta dauden jardueren ebaluazioa, irakasgaiaren notaren % 75 bezala haztatuko dena, etengabeko ebaluazioaren bitartez baloratuko da, eta gainontzeko irakasgaiaren nota, % 25 bezala haztatuko dena, azterketen bitartez (amaierako ebaluazioa) ebaluatuko da (idatzizko zein ahozko azterketen bidez).

1. Jarduera praktikoei egotzitako pisua (% 60a) jorratuko diren jardueran guztietan gradualki banatuko da:

- UV-Ikuskorra eta fluoresentzia molekularreko espektroskopien bidezko analisisa: % 8
- Xurgapen atomikoa eta ICP-OES bidezko analisi elementala: % 15
- Teknika elektrokimikoa bidezko analisi elementala: % 7
- Banaketa metodoak: bereizmen altuko likido kromatografia: % 15
- Banaketa metodoak: Gas kromatografia: % 15

2. Proiektua: Analisi-metodo baten garapena: % 15

3. Azterketei egotzitako pisua (% 15a) jarraian azaltzen den moduan banatzen da:

- 1. idatzizko azterketa: % 5
- 2. idatzizko azterketa: % 10

4. Ahozko azterketa: %10

Jarduera praktikoen gauzatzea eta ebaluatzea jarraitua den aldetik, ikasleek praktika guztiak izatea eta hauei lotutako aktibitate guztiak burutu izatea bermatu beharko dute. Bestalde, praktika berri baten jorratutako jarduerak, aurretiaz jorratutako eta natura berekoak diren ebaluatutako eta gainditu gabeko jarduerak gainditzea ahalbideratuko dute. Honek gaitasunen bereganatze-mailaren balioztatzea eta birbalioztatzea posible egingo du.

Irakasgaia gainditu ahal izateko, beharrezkoa izango da aipatutako 1., 3. eta 4. atalak gainditzea (5/10).

Ebaluazio modu honek aldaketak jasan ditzake agintari akademiko eta osasun-agintariek horrela adieraziko balute. Aldaketak modu egokian eta aurretiaz iragarriko dira ikasleei, ebaluazio estrategiak eta ebaluazio hori aurrera eramateko beharrezko baliabideak zeintzuk diren argi azalduz, beti ere ikasle goen ebaluazioa ekitatez eta zuzentasunez egingo dela ziurtatuz

COURSE GUIDE

2024/25

Faculty 310 - Faculty of Science and Technology**Cycle** .**Degree** GQUIMI30 - Bachelor's Degree in Chemistry**Year** Third year**COURSE**

26129 - Experiments in Analytical Chemistry

Credits, ECTS: 6**COURSE DESCRIPTION**

- 6.- Metodo elektrokimikoak. Metodo elektrokimikoen sailkapena. Konfigurazio instrumentala. Aplikazioak.

METODOLOGIA

Klase magistraletan eta gela praktikan oinarritutako kontzeptuak aurkeztuko dira eta irakasgaiarekin erlazionatuta dauden problemak eta kasu praktikoa ebaztuko dira. Adibideak teorikoak izan arren, kasu errealen oinarrituta daudenak izango dira. Aurkezpenak ikus-entzunezko errekurtsoez lagunduta burutuko dira, baina ikaslearen parte-hartze aktiboa bultzatuko da klasean eztabaida irekiak eta brainstorming-ak sustatuz.

Ikasleek ikaskuntza jarraitua bermatzeko, banaka zein taldeka burutuko diren eta irakaslearen gainbegiratzeko zuzena edukiko dituzten zenbait jardura (zailtasun handiagoa duten ariketen ebazpena, galdetegiak antolatuko dira. Ikasleek irakaslearen laguntza izango dute momentu oro eta jardueren ondoren feedback azkar bat jasoko dute zertan hobetu behar duten jakiteko eta ikasketa autonomo eta jarraitu bat bermatzeko.

Irakasgai hau ez da kontzeptu berrien akumulazio bakuna soilik, baizik eta kontzeptu guztien barneratzea eta lotzea. Ikasiko dituzten baliabide guztiak beharrezkoak izango dituzte zuen aktibitate profesionalean, eta horrela ikusiko dugu egoera ezberdinetako adibideetan. Berebiziko garrantzia du kontzeptu guztiak balioztatu eta eztabaidatzeko gaitasunak lortzea, eta beraz, kontzeptu guztiak barneratu eta aplikatu beharko dira, guztia norbere gogoetaren eta irakaslearen feedback-en laguntzaz.

Banakako lanen kalifikaziorako (%10), mintegiak eta zenbait GA/GO notarako balioko duten jarduerak egiteko erabil

daitezke. Hala izatekotan, aurretiaz abisatuko da.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	30	8	22		30				
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	45	12	33		45				

Legenda: M: Magistrala S: Mintegia GA: Gelako p.
GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p. GCL: P. klinikoak
TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 90
- Banakako lanak % 10

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

AZTERKETA IDATZIA: %90

Bi idatzizko proba partzial egingo dira ezarritako azterketa garai bietan. 2. probara auzeratu ahal izateko, 1goa gainditu beharko da (5/10).

Lauhilabeteko azterketen bidez gainditu ez dutenentzat azken azterketa bat egingo da ohiko deialdian.

Idatzizko probetako eduki guztiak modu orekatuan gainditu beharko dira aipatutako probak gaindituztat emateko.

BANAKAKO LANAK: %10

Irakasgaiko notaren gainontzeko %10 banakako ariketen ebazpenerakin lortuko da. Atal honetan gutxienez 5/10 izatea beharrezkoa izango da.

Deialdiari uko egiteko nahikoa da ez aurkeztea.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ez-ohiko deialdian %100 balio duen idatzizko azterketa egingo da. Proba honen eduki guztiak modu orekatuan gainditu beharko dira aipatutako probak gaindituztat emateko (5/10).

Deialdiari uko egiteko nahikoa da ez aurkeztea.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Ordenagailua, Excel (edo baliokidea), Word (edo baliokidea)-ekin trebezia

BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

D.A. Skoog, F.J. Holler, T.A. Nieman, Principios de análisis instrumental, McGraw-Hill, Madril, 2001
J.F. Rubinson, K.A. Rubinson, Análisis instrumental, Prentice Hall, Mexiko, 2000
F. Rouessac, A. Rouessac, Chemical analysis: Modern instrumentation methods and techniques, Wiley, Chichester, 2000
L. Hernández, C. González, Introducción al Análisis Instrumental, 1ª ed., Ariel Ciencia, Bartzelona (2002)
K.H. Esbensen. Multivariate data analysis, 5 ed. Camo AB Oslo, 2001
D.C. Harris, Análisis químico cuantitativo, Grupo editorial iberoamericano, Mexiko, 2001

Gehiago sakontzeko bibliografia

K. Danzer, Analytical Chemistry. Theoretical and metrological fundamentals. Springer, Berlin, 2007
R.G. Brereton. Chemometrics, John Wiley & Sons, Chichester, 2003
R. Kellner, J.-M. Mermet, M. Otto, H.M. Widmer, Analytical Chemistry, Wiley-VCH, Weinheim (1998)
J.K. Taylor, Quality assurance of chemical measurements, Lewis, Michigan, USA, 1987
M. Alley The Craft of Scientific Presentations: Critical Steps to Succeed and Critical Errors to Avoid, Springer Verlag, 2003
Colin F. Poole, The Essence of Chromatography, Elsevier, 2003
R. Cela, R. A. Lorenzo, Mª del Carmen Casais, Técnicas de Separación en Química Analítica, ed. Sintesis, 2002
C.H. Hamann, A. Hamnett, W. Vielstich, Electrochemistry, Wiley-VCH, 1998

Aldizkariak

Analytical Chemistry
Trends in Analytical Chemistry
The Analyst
Analytica Chimica Acta
Talanta
Analytical and Bioanalytical Chemistry
LC/GC
Spectroscopy Europe

Interneteko helbide interesgarriak

EHUren Biblioteka:
<http://www.biblioteka.ehu.es/p207-home/eu/>
The Analytical Chemistry Springboard:
<http://www.anachem.umu.se/jumpstation.htm>
International Union of Pure and Applied Chemistry (IUPAC): <http://iupac.chemsoc.org>
Laboratory of the Government Chemist (LGC) :
[http:// www.lgc.co.uk](http://www.lgc.co.uk)
The Virtual classroom:
<http://ull.chemistry.uakron.edu/classroom>
The Chemistry Hypermedia Project:
<http://www.files.chem.vt.edu/chem-ed/vt-chem-ed.html>
Eurachem: <http://www.eurachem.org/>
Chrom Academy:
<http://www.chromacademy.net/>

OHARRAK

IRAKASKUNTZA-GIDA

2024/25

Ikastegia 310 - Zientzia eta Teknologia Fakultatea**Zikl.** Zehaztu gabea**Plana** GQUIMI30 - Kimikako Gradua**Ikastaroa** 3. maila**IRAKASGAIA**

26126 - Kimika Ez-organikoa II

ECTS kredituak: 9**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

Irakasgai honek Kimika Ezorganikoaren arloan sakontzea du helburu, trantsizio-metalei arreta berezia emanez. Horretarako ondoko jakingaiak jorratuko dira simetriaren erabilpena kimikan, trantsizio metalen konplexuak, konposatu organometalikoak eta egoera solidoa.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

1. Simetriaren erabilpena kimikako arlo anitzetan.
2. Koordinazio konposatu eta baita konposatu organometalikoetako egitura, propietateak eta erreaktibotasuna arrazoitzea teoria egokian oinarrituz.
3. Koordinazio konposatuak eta konposatu organometalikoak formulatzeko eta izendatzeko hizkera kimikoa menperatzea.
4. Oinarriko kontzeptuak erabiltzea solido ezorganikoen egitura, propietateak eta erreaktibotasuna ulertzeko.
5. Teknika instrumentalek emandako informazioa erabiltzea konposatuak karakterizatzeko eta beraien egitura argitzeko.
6. Aurrez garatutako ereduak eta karakterizazio teknika egokien bitartez arazo kualitatibo eta kuantitatibo ebazpena. Arazo berrien azterketa, analisia eta ebazpen bideak aurkitzea.

Aurretik aipatutako irakasgaiaren berezko gaitasunak jorratzeaz gain, 1393/2007 Errege Dekretuan definitzen diren modulu orokorraren ondoko gaitasunak espezifiko eta zeharkakoak ere landuko dira:

1. Konposatu ezorganikoen egitura, propietateak, sintesi bideak eta erreakzio kimiko garrantzitsuenak jakitea.
2. Laborategian, beti ere segurtasun neurri eta teknika egokiak erabiliz, konposatu ezorganikoak lortzeko sintesi bide errazak aurrera eramateko gaitasuna, konposatuaren karakterizazioa egiten jakitea eta datu esperimentalak interpretatu.
3. Material ezorganiko ezberdinen egitura-propietate arteko erlazioa ulertzea eta beraien erabilpena ezagutu.
4. Substantzia kimikoak karakterizatzeko teknika egokia aukeratzea.
5. Modu ulerker batean, Kimikarekin eta erlazionaturiko arloetako gertakari eta prozesuak azaltzen jakin, bai modu idatzian bai hitzez.
6. Bibliografia eta informazioaren eta komunikazioaren teknologia erabilia kimikaren eta beste arlo zientifikoaren esparruan informazioa eskuratzeko eta aukeratzeko gaitasuna izatea.
7. Kimika beste jakintzagaiekin erlazionatzeko gai izatea, eta horretaz gain, gizartean duen eragina ulertzea.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

KOORDINAZIO KONPOSATUAK. Simetriaren arabera molekulen sailkapena. Irudikapenak eta Karaktere Taula. Egitura eta lotura. Ligando motak. Formulazioa eta izendapena. Koordinazio indizeak eta estereokimika. Lotura teoriak. Propietate espektroskopikoak eta magnetikoak. Koordinazio konpostuen egonkortasuna. Ordezkapen erreakzioak: zinetika eta mekanismoak. Elektro transferentziako erreakzioak. Barne eta kanpo esfera erreakzioak.

KONPOSATU ORGANOMETALIKOAK. Konposatu organometalikoaren sailkapena: loturaren izaera eta estekatzaila motak. 18 elektroien araua. Konposatuak estekatzaila pi-hartzailekin. Konposatuak metal-karbono sigma-loturekin. Konposatuak estekatzaila pi-emailekin. Erreaktibitatea. Erabilpena katalisian.

SOLIDO EZORGANIKOAK. Egituren ezaugarriak. Sailkapena. Lotura ereduak. Lotura motaren arabera egitura aurrean. Solido kristalinoak eta akatzak. Solido ez-estekiometrikoak.

KONPOSATU EZORGANIKOEN KARAKTERIZAZIO TEKNIKAK. Teknika espektroskopikoak (IG, RAMAN, Ikus-UM, erresonantzia magnetikoa) eta X-izpien difrakzio teknikak.

LABORATEGIKO PRAKTIKAK. Koordinazio konposatu eta konposatu organometalikoaren sintesia. Solido ezorganikoen prestaketa. Teknika espektroskopiko, magnetiko, termograbitmetriko eta X-izpien difrakzio bitarteko karakterizazioa.

METODOLOGIA

Ordu gehienak eskola magistralak izango dira, 45 ordu hain zuzen, non trantsizio-metalen koordinazio konposatu, solido ezorganikoen eta konposatu organometalikoaren ezaugarriak azalduko diren. Klasean azaldutakoa ikasleek ikasgelaz kanpoko jardueren orduetan (67.5 ordu) landuko dute, problema praktikoak askatzeko gai izateko. Problema hauek ikasgelako 15 eskola-orduetan garatuko dira. Honez gain, ikasleek kimika ezorganikoaren ezaugarritze teknika ohikoan jorratuko dira mintegietako 5 orduetan zehar. Irakasgaiaren teoria jorratuko baita ere, irakasgaiaren laborategi 25 eskola-orduetan zehar.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	45	5	15	25					
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	67,5	7,5	22,5	37,5					

Legenda: M: Magistrala

GL: Laborategiko p.

TA: Tailerra

S: Mintegia

GO: Ordenagailuko p.

TI: Tailer Ind.

GA: Gelako p.

GCL: P. Klinikoak

GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 80
- Praktiak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 10
- Banakako lanak % 10

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Irakasgaiaren bukaerako notan ondoko atalak hartuko dira kontutan:

- Ikasturtean zehar egindako ariketak, galderak, lanak... Ikaslearen partehartze aktiboa ere kontutan hartuko da. (bukaerako notaren %10)

- Laborategiko lana eta laborategiko koadernoak: saiakera esperimentalak egiteko trebetasuna, segurtasun arauak jarraitzea eta saio esperimentaletan irakasleak proposaturiko galderak modu egokian erantzutea. (%10)

- Laborategi-praktiketako azterketa: laborategi saioetan zehar jorrotutako gauzen gaineko galdera motzak. (%10)

- Irakasgaiaren alde teorikoaren gaineko azterketa idatzia. (%70) Irakasgaiaren zati teorikoaren bi azterketa partzial egingo dira bukaerako azterketari begira materia askatzeko baldin eta 6.0 baino nota altuagoa eskuratzen bada. Derrigorrezkoa izango da partzialen bitartez eta praktiken azterketan askatu ez diren edukiak bukaerako azterketan berriz ebaluatzea.

Edozein kasutan, irakasgaia gainditzeko atal bakoitzean 4 baino nota altuagoa behar da.

Ebaluazio probetan, debekatuta dago ikasleek liburuak, oharrek edo oharrek erabiltzea. Telefonoak edo gailu elektronikoak, informatikoak eta beste motako gailuak ere debekatuta daude proba hauetan.

Ebaluazio jarrai honi uko egin nahi dioten ikasleek, azken ebaluazio bidez ebaluatutako izateko, idatzi bat aurkeztu beharko dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari eta, horretarako, 18 asteko epea izango du irakasgaia hasten denetik. Azterketara ez azaltzea, ohiko deialdiari uko egitea suposatuko du.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ezohiko deialdian, idatzizko azterketaren ekarpena azkenengo notari %100 izango da. Azterketara ez azaltzea, ezohiko deialdiari uko egitea suposatuko du.

Ebaluazio probetan, debekatuta dago ikasleek liburuak, oharrek edo oharrek erabiltzea. Telefonoak edo gailu elektronikoak, informatikoak eta beste motako gailuak ere debekatuta daude proba hauetan.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Laborategian jarduteko: txabusina, segurtasun betaurrekoak eta laborategiko koadernoak

BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

C.E. Housecroft eta A.G. Sharpe. "Inorganic Chemistry", 5th Ed. Pearson (2018).

G. Miessler, P. Fischer eta D. Tarr. "Inorganic Chemistry", 5th Ed. Pearson (2013).

M. Weller, T. Overton, J. Rourke eta F. Armstrong. "Inorganic Chemistry", 7th Ed. Oxford University Press (2018).

A.R. West. "Solid State Chemistry and Its Applications". 2nd Ed. Wiley John & Sons (2022).
New York, (2005).

G.O. Spessard y G.L. Miessler. "Organometallic Chemistry", 3rd Ed. Oxford University Press (2015).

C. Elschenbroich. "Organometallic Chemistry", Wiley-VCH (2016).

A. Vincent. "Molecular Symmetry and Group Theory : A Programmed Introduction to Chemical Applications", 2nd Ed. Wiley (2001).

R.H. Crabtree. "The Organometallic Chemistry of the Transition Metals", 7ª Ed. Wiley (2019).

J. G. Ribas. "Coordination Chemistry", Wiley-VCH (2008).

L. Smart eta E. Moore. "Solid State Chemistry: an introduction", 5th Ed. CRC Press (2020).

E. Reyes, O. Castillo, U. Uria, S. Pérez, J. Cepeda, L. Carrillo, J. L. Vicario y G. Beobide. "Formulazioa eta nomenklatura

kimikoa. IUPACen arauak eta ariketak", Universidad del País Vasco, Leioa (2019).

Gehiago sakontzeko bibliografia

D. Astruc. "Química Organometálica", Reverté, Barcelona (2003).

F.A. Cotton, G. Wilkinson, C.A. Murillo y M. Bochmann. "Advanced Inorganic Chemistry", 6ª Ed. Wiley & Sons, New York (1999).

P.A. Cox. "The Electronic Structure and Chemistry of Solids", Oxford University Press, Oxford (1987).

G.S. Girolami, T.B. Rauchfuss y R.J. Angelici. "Synthesis and Technique in Inorganic Chemistry", 3ª Ed. University Science Books, London (1999).

N.N. Greenwood y A. Earnshaw. "Chemistry of the Elements", Butterworth-Heinemann, Oxford (1997).

A.R. West. "Basic Solid State Chemistry", 2ª Ed. John Wiley & Sons, Chichester (1999).

Aldizkariak

Coordination Chemistry Reviews, Elsevier

Inorganic Chemistry Frontiers, Royal Society of Chemistry

Inorganic Chemistry, ACS Publications

Dalton Transactions, Royal Society of Chemistry

European Journal of Inorganic Chemistry, Wiley

Inorganica Chimica Acta, Elsevier

Interneteko helbide interesgarriak

<http://www.webelements.com>

<http://symmetry.otterbein.edu/>

<http://www.ilpi.com/organomet/index.html>

<https://ikasmaterialak.ehu.eus/kimika/kimika-ez-organiko-aurreratua>

<https://www.ccdc.cam.ac.uk/solutions/csd-core/components/webcsd/>

OHARRAK

IRAKASGAIA

26123 - Kimika Fisikoa II

ECTS kredituak: 9

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Irakasgaiaren helburu nagusia sistema kimiko fisikoak ikatea da ikuspuntu mikroskopikotik; modu honetan, materia osatzen duten sistema atomiko-molekularren propietateak elkarlotuko dira Kimika Fisikoa I irakasgaiaren ikasitako propietate makroskopikoekin. Horretarako, Kimika Kuantikoa aplikatzen da atomo eta molekulen propietateak kalkulatzeko, gero teknika espektroskopikoen bidez lortutako datu esperimentalekin konparatuko direnak. Termodinamika Estatistikoaren bitartez, sistema makroskopikoen magnitude kimiko fisikoaren balioak kalkulatzeko dira propietate mikroskopikoetan oinarrituz. Irakasgaiaren ordenagailuko eta laborategiko praktikak ere egiten dira: lehenengoetan, kimika kuantikoko kalkuluak burutzen dira programa informatikoak erabiliz, eta bigarrenetan datu esperimentalak neurtzen dira teknika espektroskopikoen laguntzaz.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

Ikaslea gai izan beharko da Kimika Kuantikoa, Espektroskopia eta Termodinamika Estatistikoaren printzipioak ulertzeko eta prozesu kimikoetan aplikatzeko. Era berean, ikaslea trebea izan beharko da kimika konputazionalako kalkuluak burutzeko eta espektroak erregistratzeko ohiko tekniken bidez.

Aurrekoak hurrengo zeharkako gaitasunekin osatu beharko dira:

Kimikarekin eta kideko arloekin erlazionatutako fenomeno eta prozesuak aurkeztu ahal izatea modu ulergarrian.

Kimika beste arlo batzuekin elkarlotzeko gai izatea; Kimikaren eragina egungo gizartean ulertzea, eta baita industriagintza kimikoaren garrantzia ere.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

- Kimika kuantikoaren oinarriak: uhin-funtzioa eta Schrödinger-en ekuazioa. Ziurgabetasun-printzipioa.
- Kimika kuantikoaren aplikazioa sistema sinpleetara: translazio- eta bibrazio-higidura. Momentu angeluarra eta errotazio-higidura.
- Egitura atomikoa: Atomo hidrogenoideak. Atomo polielektronikoak: aldakuntza-metodoa. Pauli-ren elkarrezintasunaren printzipioa. Hartree-Fock metodoa. Termino espektralak.
- Egitura molekularra: orbital molekularren metodoa. Konfigurazio elektronikoak. Termino molekularrak. Kimika kuantiko konputazionala.
- Espektroskopien oinarriak: erradiazio-materia elkarrekintza. Absortzioa eta emisioa. Raman efektua. Erotazio-espektroskopia: molekula diatomikoen mikrouhin eta Raman espektroak.
- Bibrazio-espektroskopia. Molekula diatomikoen infragorri eta Raman espektroak. Errotazio-egitura. Bibrazio-modu normalak. Molekula poliatomikoen infragorri eta Raman espektroak. Funtzio-taldearen berezko bandak.
- Espektroskopia elektronikoa: Absortzio-espektroak molekula diatomikoetan. Kromoforoak. Karga-transferentziako konplexuak. Fluoreszentzia eta fosforeszentzia. Etekin kuantikoa eta erdibizitza. Laserrak. Espekto fotoelektronikoak ultramorean eta X-izpietan.
- Erresonantzia-espektroskopia: erresonantzia magnetiko nuklearraren eta spin elektronikoaren erresonantziaren printzipioak. Lerrakuntza kimikoak eta spin-spin ahokatzia.
- Termodinamika Estatistikoa: Oinarriak. Partiketa-funtzio molekularrak. Magnitude termodinamikoaren kalkulua. Oreka-konstantea.

Ordenagailu-praktikak: Kimika konputazionala.

Laborategiko praktikak: Fourier transformatua infragorrian (FT-IR), ikusgai/ultramoreko absortzioa eta fluoreszentzia.

METODOLOGIA

Irakasgaiaren hurrengo eskola-motak ematen dira: ikasgelako eskolak (hauetan teoria-edukiak, problemak eta mintegiak daude), ordenagailu- eta laborategi-praktikak.

Beharrezkoa da ordenagailu- eta laborategi-praktikak egitea.

Ordenagailu-praktikak lehen lauhilabetean zehar egingo dira.

Laborategi-praktikak bigarren lauhilabetean zehar burutuko dira.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	34	5	15	26	10				
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	51	7,5	22,5	39	15				

Legenda: M: Magistrala S: Mintegia GA: Gelako p.
GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p. GCL: P. Klinikoak
TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 75
- Praktiak (arriketak, kasuak edo buruketak) % 10
- Banakako lanak % 10
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 5

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

- Azken azterketa eta ikasgelako bestelako jarduerak: kalifikazioaren %75
- Ordenagailu- eta laborategi-praktikak (txostenak barne): kalifikazioaren %25.

Edozelan ere, beharrezkoa izango da atal bakoitzaren %35a gainditzea irakasgai osoa gainditzeko.

Ohiko deialdira ez aurkeztea nahikoa da irakasgaiari uko egiteko.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ohiko deialdiaren berberak izango dira. Ikasturtean zehar lortutako ordenagailu- eta laborategi-praktiketako kalifikazioa gordeko da.

Ohiko kanpoko deialdira ez aurkeztea nahikoa da irakasgaiari uko egiteko.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Mantal zuria, laborategiko betaurrekoak eta laborategi koadernoak.

BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

- P. Atkins, J.de Paula, "Elements of Physical Chemistry", 6. arg. Oxford University Press, 2013.
P. Atkins, J. de Paula, "Química Física", 8. arg. Panamericana, 2008 / "Physical Chemistry", 11. arg. Oxford University Press, 2017.
R.J. Silbey eta R.A. Alberty, "Kimika Fisikoa", Euskal Herriko Unibertsitatea, 2006.
E.H. Brittain, W.O. George eta C.H. Well, "Introduction to Molecular Spectroscopy. Theory and Experiment", Academic Press, 1970.
I. N. Levine, "Physical Chemistry", 6. arg. Mac Graw Hill, 2009.
Praktiketarako kaierak, UPV/EHU

Gehiago sakontzeko bibliografia

- A. Requena eta J. Zúñiga, "Espectroscopía", Pearson Prentice-Hall, 2004.
J.M. Hollas, "Modern Spectroscopy" (4. arg.), Wiley, 2003.
J. Bertran, V. Branchadell, M. Moreno eta M. Sodupe, "Química Cuántica", Sintesis, 2002.
A.M. Halpern, "Experimental Physical Chemistry. A Laboratory Textbook", 3. arg., Prentice, 2006

Aldizkariak

Journal of Chemical Education
Education in Chemistry
Journal of Physical Chemistry

Interneteko helbide interesgarriak

http://riodb01.ibase.aist.go.jp/sdbs/cgi-bin/cre_index.cgi
<http://webbook.nist.gov/chemistry>
<http://www.chemtube3d.com>

<https://ocw.mit.edu/courses/chemistry/5-61-physical-chemistry-fall-2007/lecture-notes/>
https://chem.libretexts.org/Core/Physical_and_Theoretical_Chemistry

OHARRAK

Idatziko azterketak egiterakoan, bakarrik erabili ahal izango dira, besterik esaten ez bada, idazteko ohiko tresnak eta kalkulagailu zientifikoak.

Ikastegia 310 - Zientzia eta Teknologia Fakultatea

Zikl. Zehaztu gabea

Plana GQUIMI30 - Kimikako Gradua

Ikastaroa 3. maila

IRAKASGAIA

26114 - Kimika Organikoa II

ECTS kredituak: 9

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Konposatu organikoen propietate espektroskopikoen bitartez, egitura determinaziorako bide nagusien sarrera lantzen da irakasgai honetan. Erreaktibitateari dagokionez, C-C loturen eraketak beteko du irakasgaiaren gehiena, bertan enol eta enaminen kimika, zikloadizio errakzioak eta beste hainbat bide sintetiko ikusiko dira beste hainbat gaien artean, kimika heteroziklikoa barne dagoelarik. Bestalde, sintesiaren plangintzan eta bide espektroskopikoen bitartezko egitura zehaztapenean oinarritutako laborategiko praktikak ere izango dira.

Graduko 2. mailako Kimika Organikoa I irakasgaiaren landutakoaren sakontze edo zabaltze prozesuan kokatu daiteke Kimika Organikoa II, baita hautazko "Egitura Organikoen Zehaztapena" eta "Sintesi Organikoa" irakasgaietarako lotugune funtzioak ere beteko duelarik

(informazio gehiagotarako, ikus Ikaslearen Gida)

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

Berezko gaitasunak:

1. Konposatu organikoen egitura, propietateak, prestaketarako bideak eta erreakzio kimiko garrantzitsuenetan sakontzea.
2. Konposatu kimikoen sintesi eta karakterizazio prozedura errezak diseinatzeko eta laborategian aurrera eramateko gaitasuna. Honetarako, behar bezalako ziurtasun-neurriak eta teknika egokiak menperatu behar dira, baita datuak aztertu eta ulertzeko gaitasuna ere.
3. Eragiketa kimiko indutrialetan Kimikaren oinarriko arauak erabiltzeko gaitasuna.

Zeharkako gaitasunak:

1. Substantzia kimikoen karakterizaziorako teknika instrumentalen artean bereiztea
2. Ahoz zein idatzi, era ulergarri batean, Kimikarekin eta erlazonatutako gaiekin zerikusia duten gertakizuna eta prozesuak azaldu ahal izatea.
3. Kimikan eta beste arlo zientifikotan informazioa bilatzeko eta iragazteko erraztasuna, bibliografian eta bestelako informazio eta komunikaziorako teknologietan oinarritua.
4. Kimika beste disziplinekin erlazonatzeko gaitasunaz gain, gaur egungo gizartean duen eragina eta industriako arlo kimikoa ulertzea.

(informazio gehiagotarako, ikus Ikaslearen Gida)

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

1 Gaia. Metodo Espektroskopikoen bidezko Egitura Determinazioa.

- 1.1. Espektru elektromagnetikoa
- 1.2. IR Espektrofotometria. Oinarri teorikoa. Funtzio-talde nagusiak. Tresneria.
- 1.3. UV-VIS Espektrofotometria. Oinarri teorikoa. Kromoforak, auxokromoak. Tresneria.
- 1.4. EMN Espektroskopia. Oinarri teorikoa. Lerrakuntza kimikoa. Anizkoitasuna. Integrazioa. 13C-EMN.
- 1.5. Masa-Espektrometria. Oinarri teorikoa. Tresneria. Apurketak eta emaitzen hausnarketa.
- 1.6. Bide espektroskopikoen bitartez, konplexutasun baxuko konposatu organikoen egitura determinazioa.

2 Gaia. Enol eta enaminen kimika.

- 2.1. Kondentsazio aldolikoa.
- 2.2. Ziklazio aldolikoak.
- 2.3. Claisen kondentsazioa.
- 2.4. Dieckman kondentsazioa.
- 2.5. Michael erreakzioa.
- 2.6. Enaminen eraketa. Imina-enamina oreka tautomerikoa.
- 2.7. Enaminen alkilazioa
- 2.8. Enaminen azilazioa

3 Gaia. C,C Loturen eraketa.

- 3.1. Wittig erreakzioa.
- 3.2. Peterson erreakzioa.
- 3.3. Mannich erreakzioa.
- 3.4. Reformatsky erreakzioa.
- 3.5. Bestelako erreakzionatzaile organometalikoaren erabilera.

4 Gaia. Heterozikoak.

4.1. Definizioa eta sailkapena

4.2. Heteroziklo aseak. Erreaktibitatea (base/nukleozale).

4.3. Heteroziklo aromatikoak. Hodei elektronikoaren eskasia eta aberastasuna. Ordezkapen elektroizalea.

5 Gaia. Zikloadizioak eta erreakzio elektroziklikoak.

5.1. Diels-Alder erreakzioa.

5.2. Zikloadizio 1,3-dipolarak eta bestelako erreakzio erlazionatuak.

Gai-zerrenda bost laborategiko saioekin osatuko da, bertan konposatu organikoen sintesi errezak landuko direlarik. Saio praktikoa hauek aldatu ahal dira irakasle-taldearen hitzarmenez.

1. Praktika: Enol eta enolatoen erreakzionakortasunean oinarritutako C-C loturen eraketa. Produktuen egitura determinazioa (EMN, IR)

2. Praktika: Erredukzioa/oxidazioa. Produktuen egitura determinazioa (EMN, IR)

3. Praktika: Aurreko erreakzioetatik lorturiko produktuen funtzionalizazioa. Produktuen egitura determinazioa (EMN, IR)

4. Praktika: C=C loturen eraketa. Produktuen egitura determinazioa (EMN, IR)

5. Praktika: Kimika Heteroziklikoa. Produktuen egitura determinazioa (EMN, IR)

(informazio gehiagotarako, ikus Ikaslearen Gida)

METODOLOGIA

Eskola magistralak, Mintegiak, Ikasgelako praktikak eta Laborategiko praktikak izango dira irakaskuntz-bektoreak. Eskola magistraletan kontzeptu teoriko-praktikoen gehiena landuko da, adibide eta alde zuzenetik emandako ariketen bitartez (Ikasgelako praktiketan batez ere jorratuak) finkatuko delarik. Mintegiei dagokienez, laborategiko saioak prestatzeko (egindako praktikaren oinarria, eragiketa esperimentalen azalpena) erabiliko dira.

(informazio gehiagotarako, ikus Ikaslearen Gida)

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	45	5	15	25					
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	67,5	7,5	22,5	37,5					

Legenda: M: Magistrala

S: Mintegia

GA: Gelako p.

GL: Laborategiko p.

GO: Ordenagailuko p.

GCL: P. klinikoak

TA: Tailerra

TI: Tailer Ind.

GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 60
- Praktikak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 30
- Banakako lanak % 10

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Metodologia eta Irakaskuntza-motak izenekoetan azaldu den moduan, irakasgaiaren ebaluazioa ohiko deialdian ondoan adierazitako arlotan egingo da, arlo bakoitzari dagokion portzentaia adierazitakoa izanik:

Azterketa: %60

Laborategia (praktikak + txostenak) eta Mintegiak: %30

Ikasgela: %10

Aurreko hiru arloetako bakoitzean, hamar puntutik bost baino gehiago eskuratu beharko dira irakasgaia gainditu ahal izateko. Gutxieneko puntuazio hori (5 puntu) nahitaezkoa izango da arlo bakoitzaren bestelako azpiataletan (praktikak, txostenak eta mintegiak, esate baterako).

Azterketei dagokienez, bi azterketa partzial eta amaierako bat egitea aurreikusi da. Azterketa partzial bakoitzean hamar puntutik bost baino gehiago lortu behar da azterketaren zati hori liberatzeko. Azterketa partziala(k) gainditzeko ez duten/dituzten ikasleek azterketa finala egin beharko dute. Azterketa partzialak edota finala gainditzeak ez dakar irakasgaiaren gainditzea, zeren eta ebaluazioan gainontzeko %40-a (Laborategia, Mintegiak eta Ikasgela izeneko arloei dagokiena hain zuzen) kontutan hartu beharko baita.

Laborategiko arloan, egindako praktiken inguruko txostenak egin beharko ditu ikasleak. Arlo honen ebaluazioan, aipaturiko txostenak ez ezik, praktika bera eta mintegietan zein praktikan ebatzitako ariketak ere ebaluatuko dira. Laborategi-saioetan eta dagozkien mintegietan parte-hartzea ezinbestekoa da.

Ikasgela izeneko arloan, asistentzia, eskoletan parte hartzea, lortu beharreko gaitasunen finkatzea, eta Metodologian aipaturiko ariketa adierazgarrien zein ikasturtean zehar egindako beste batzuen ebazpena ebaluatuko da.

Ikasleak uko egin ahal izango dio orain arte azaldu den etengabeko ebaluazioari (edo mistoari) eta azken ebaluazioa aukeratu, etengabeko ebaluazioan parte hartu zein ez hartu. Horretarako Gradu Ikasketetarako Ebaluaziorako araudia jarraituko da.

Azken ebaluazioa, irakasgaiaren arlo guztiak ebaluatuko d(ir)eneko azterketa(k) izango d(ir)a, azterketaaldi ofizialean egingo d(ir)elarik. Azken ebaluazioaren kasuan, azterketa egun ofizialean egin beharreko prob(et)ara ez aurkezte hutsak ekarriko du automatikoki kasuan kasuko deialdiari uko egitea.

Azkenik, ohiko deialdiari uko egiteari dagokionez, ikasleak uko egin izango dio ohiko deialdiari. Azterketa finalera ez aurkezte hutsak uko egitea adieraziko du berez.

(informazio gehiagotarako, ikus Ikaslearen Gida eta 2017/03/13-an EHAA-n argitaratutako Gradu Ikasketetarako Ebaluaziorako araudia)

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ezohizko deialdian egindako azterketaren kalifikazioa, irakasgaiaren kalifikazioaren %100 izango da. Irakasgaiaren alde teorikoak eta praktikoak ebaluatuko dira, Ikasgela izeneko arloko ikaslearen parte hartzea izan ezik ohiko deialdian deskribaturiko beste arlo guztiak jorraturik.

Kasu honetan azterketara ez aurkezteak deialdi horri uko egitea ekarriko du.

(informazio gehiagotarako, ikus Ikaslearen Gida eta 2017/03/13-an EHAA-n argitaratutako Gradu Ikasketetarako Ebaluaziorako araudia)

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Bata, segurtasun betaurrekoak, kuadernoak, beiran idazteko errotulkiak, mikroespatula, kalkulagailua.

(informazio gehiagotarako, ikus Ikaslearen Gida)

BIBLIOGRAFIA

Oinarrizko bibliografia

1. L. G. Wade, Jr., QUÍMICA ORGÁNICA, Pearson-Prentice Hall, 5ª ed., 2004.
2. K. P. C. Vollhardt, N. E. Schore, QUÍMICA ORGÁNICA, Omega, 3ª ed., 2000 (KIMIKA ORGANIKOA, 1ª ed., UPV/EHU, Leioa, 2008).
3. J. McMurry, QUÍMICA ORGÁNICA, International Thomson Editores, 5ª ed, 2001.
4. Clayden, Greeves, Warren and Wothers "Organic Chemistry", 1st ed. Oxford University Press. 2001.
5. Ege, S. "Química Orgánica". 1ª ed. Editorial Reverté. 1997.
6. F. A. Carey, "Organic Chemistry", 4ª ed McGraw-Hill, 2004.
7. J. I. Borrell, J. Teixidó, J. L. Falcó, SÍNTESIS ORGÁNICA, Síntesis, 2004.
8. M. Carda; S. Rodríguez; F. González; J. Murga; E. Falomir; E. CASTILLO, SÍNTESIS ORGÁNICA. RESOLUCIÓN DE PROBLEMAS POR EL MÉTODO DE DESCONEJÓN. Publicaciones de la Universitat Jaume I, Castellón, 1996
9. J. L. Marco, QUÍMICA DE LOS PRODUCTOS NATURALES, Síntesis 2006
10. T. L. Gilchrist QUÍMICA HETEROCÍCLICA. 2 ed. Addison-Wesley Iberoamericana, USA, 1995.
11. M. J. Rodríguez, F. Gómez, CURSO EXPERIMENTAL EN QUÍMICA ORGÁNICA, Síntesis, 2008.
12. M. A. Martínez, A. Csáký, TÉCNICAS EXPERIMENTALES EN SÍNTESIS ORGÁNICA, Síntesis, 2005.
13. SAFETY IN ACADEMIC CHEMISTRY LABORATORIES: VOLUME 1 y2. ACCIDENT PREVENTION FOR FACULTY AND ADMINISTRATORS, 7ª Ed. American Chemical Society, Washington, DC, 2003
14. M. Hesse, H. Meier, B. Zeeh, MÉTODOS ESPECTROSCÓPICOS EN QUÍMICA ORGÁNICA, Síntesis, 2006.
15. P. Pretsch, C. Bühlmann, A. Afolter, R. Herrera, Martínez, Tablas para la determinación estructural por métodos espectroscópicos, Springer-Verlag Ibérica, 2001.

(informazio gehiagotarako, ikus Ikaslearen Gida)

Gehiago sakontzeko bibliografia

1. S. Warren, P. Hyatt, ORGANIC SYNTHESIS: THE DISCONNECTION APPROACH, Wiley, 2008
2. F. A. Carey, R. J. Sundberg, ADVANCED ORGANIC CHEMISTRY, Partes A y B, 5ª Edición, Springer, 2007.
3. M. B. Smith, J. March, MARCHS ADVANCED ORGANIC CHEMISTRY: REACTIONS, MECHANISMS AND STRUCTURE, 6ª Ed. Wiley, 2007.
4. R. Bruckner, ADVANCED ORGANIC CHEMISTRY: REACTION MECHANISMS, Academic Press, Londres, 2001.
5. J. A. Joule, K. Mills, HETEROCYCLIC CHEMISTRY, 4ª Ed., Blackwell Science, 2000
6. P. M. Dewick, MEDICINAL NATURAL PRODUCTS. A BIOSYNTHETIC APPROACH, 2ª Ed., Wiley, Chichester, 2002.
7. R. M. Silverstein; F.X. Webster; D. Kiemle, SPECTROMETRIC IDENTIFICATION OF ORGANIC COMPUNDS, 7ª ed., Wiley & Sons, Nueva York, 2005
8. D. W. Williams; I. FLEMING, SPECTROSCOPIC METHODS IN ORGANIC CHEMISTRY, 6ª Ed., McGraw-Hill, Londres, 2007.

(informazio gehiagotarako, ikus Ikaslearen Gida)

Aldizkariak

Organic Syntheses: <http://www.orgsyn.org/>
The Journal of Organic Chemistry: <http://pubs.acs.org/journal/jocea>
Organic Syntheses: <http://www.orgsyn.org/>
The Journal of Organic Chemistry: <http://pubs.acs.org/journal/jocea>
Organic Letters: <http://pubs.acs.org/journal/orlef7>
European Journal of Organic Chemistry: <http://www3.interscience.wiley.com/journal/27380/home>
Tetrahedron: <http://www.sciencedirect.com/science/journal/00404020>
Organic and Biomolecular Chemistry: <http://www.rsc.org/Publishing/Journals/Ob/Index.asp>
The Journal of Chemical Education: <http://jchemed.chem.wisc.edu/>
Organic Letters: <http://pubs.acs.org/journal/orlef7>
European Journal of Organic Chemistry: <http://www3.interscience.wiley.com/journal/27380/home>

(informazio gehiagotarako, ikus Ikaslearen Gida)

Interneteko helbide interesgarriak

Organic Chemistry Portal: <http://www.organic-chemistry.org/>
Organic Resources Worldwide: <http://www.organicworldwide.net/>
Konposatu organikoen datu baseak: <http://pubchem.ncbi.nlm.nih.gov/> , <http://www.chemspider.com/>

(informazio gehiagotarako, ikus Ikaslearen Gida)

OHARRAK

(informazio gehiagotarako, ikus Ikaslearen Gida)